

UDALETIK

Informazio buletina 1 zk.

URTARRILA 2016



KINLUKA

2016. URTEKO AURREKONTUAK PARTE HARTU!

Udal gobernutik 2016ko aurrekontuak lantzen gabiltza eta gure asmoa 2016ko lehen hiruhilabetekoan hauek behin betiko onartzea da.

Aurrekontuetan aldaketak egin ditugu; besteak beste, Udal Kirol Erakundea (UKE) eta Lekeitioko Udal Kultur Erakundea (LUKE) (erakunde autonomoak izan direnak) desegin ditugu, zerbitzuen arrazionalizazioa eta pertsonalaren berrantolaketa beharrezkoa dela ikusi delako, administrazioaren eraginkortasuna bermatzeko eta herritarroi ematen zaizkizuen zerbitzuen kalitatea hobetzeko. Erakunde autonomo hauek desegin eta udalarekin bateratzeak diru aurrezpena ekarriko du.

Gainera, ezinbestean bizi dugun errealitate ekonomikora egokitu behar izan dira aurrekontuak. Bai-

na, argi dugu **2016ko aurrekontuetan erabateko lehenetsia dutela hezkuntzak, gizarte zerbitzuek eta herriaren funtzionamendurako oinarritzekoak diren zerbitzuek.**

Udal gobernu honek, hauteskunde kanpainan emandako hitza betetz, legegaldi honetan **partehartzearen eta gardentasunaren** alde egingo du. Hau horrela, zure iritzia eta proposamenak entzun eta jakitea ezinbestekoa dela deritzogu.

Beraz, Lekeition erroldatuta bazeude eta adinagusikoa bazara, **otsailaren 7ra arte** egin itzazu Udaleko edozein bulegotan, web orrialdean www.lekeitio.eus partehartzeko udal e-mail helbidean (partehartzea@lekeitio.eus) edota whatsapp bidez (656702508)

PRESUPUESTOS 2016 ¡PARTICIPA!

Estamos elaborando los presupuestos para el año 2016 y esperamos que estén aprobados definitivamente en el primer trimestre del 2016.

La propuesta que te hacemos llegar tiene novedades: para mejorar la eficacia y calidad de los servicios prestados, se ha visto necesaria la disolución del Patronato de Deportes y de Cultura con el objetivo de racionalizar los servicios y reorganizar el personal. La disolución conlleva un ahorro para las arcas municipales.

Debemos adaptarnos a la realidad económica que vivimos, pero tenemos claras cuáles son las líneas prioritarias: Educación, Servicios Sociales y los servicios esenciales para el correcto funcionamiento de los servicios municipales.

En la campaña electoral, este equipo de Gobierno prometió que se apostaría por la participación ciudadana y la transparencia en la gestión. Es por ello que consideramos que escuchar y conocer tu opinión y aportaciones es fundamental.

Si estás empadronado/a en Lekeitio y eres mayor de edad, haznos llegar tus aportaciones y propuestas hasta el 7 de febrero presentándolos en cualquier oficina municipal, a través de nuestra página web (www.lekeitio.eus) dirección de correo electrónico (partehartzea@lekeitio.eus) o whatsapp (656702508).

LEKEITIO ZEURE ERARA egiteko!


www.lekeitio.eus

partehartzea@lekeitio.eus


656702508


[@Lekeitio_Udala](https://twitter.com/Lekeitio_Udala)

youtube.com/LekeitiokoUdala

facebook.com/LekeitiokoUdala

**lekeitioko
udala**

UDAL GOBERNUAREN PROPOSAMENA

2016. urtean Lekeitioko Udalak 8.261.765,00 euro izango ditu. Baina, atal batzuk ukiezinak edota alda ezinak dira; hala nola, pertsonala, herriaren funtzionamendurako gastuak (kale argiteria, ura, seguruak, etab.) edota udalak dituen konpromisoak (Lea-Artibai Amankomunazgoko kuota, etab.).

Aurrekontua bere osotasunean ikusi nahi izanez gero, Lekeitioko Udaleko idazkaritzan edo web orrialdean duzu.

Udal gobernuaren 2016. urteko aurrekontu proposamena hurrengo hau da:

En el año 2016, el Ayuntamiento de Lekeitio dispondrá de 8.261.765,00 euros.

La propuesta de presupuestos está disponible en su totalidad en la Secretaría del Ayuntamiento o en la página web del mismo.



lekeitioko
udala

BERDINTASUNA

22.000,00 €

2016an, alde batetik, Lekeitioko Udaleko III. Berdintasun Plana landuko da eta bestetik, "Indarkeria matxistaren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei arreta hobetzeko" udal protokoloa onartu eta martxan jarriko da. Protokoloaren onartzeak markatuko du Emakumea eta Berdintasun Zerbitzuaren funtzionamendua. Protokoloa gauzatzeko, bertan inplikatuak dauden udaleko profesional eta politikariei formazioa ematea ekarriko du. Baita protokoloa herrian ezagutaraztea ere. Era berean, besteak beste, aldizkari bat ere ateratu nahi da zerbitzuan egiten ari garena plazaratzeko.

Lekeitioko Udalak Berdintasun teknikaria dauka, eta honen eta Emakumea eta Berdintasun Batzordearen bidez herritarrei begira ekintzak antolatzen jarraituko da.

IGUALDAD

Se elaborará el III Plan Municipal de Igualdad y se procederá a la aprobación y puesta en marcha del Protocolo Municipal para mejorar la atención a mujeres víctima de violencia machista y agresiones sexuales.

El Ayuntamiento de Lekeitio cuenta con una técnico de igualdad y una comisión.

HERRI LANAK, ERAIKINEN MANTENIMENDUA ETA INGURUMENA

586.693,00 €

Eliz Atea kalearen sarreraren irisgarritasun lanak egiten hasi gara eta herriko kaleen mantentze eta hobekuntza lanekin jarraituko dugu (zebra bideak, losak, argiteria, barandak eta farolak pintatu, etab.). Aipatzekoa da sahiesbidearen zehar eserlekuak ipiniko ditugula oinezkoek atseden hartzeko.

Kalaxorien kontrol kanpaina ere egingo dugu, besteak beste.

OBRAS, MANTENIMIENTO DE EDIFICIOS Y MEDIO AMBIENTE

Hemos comenzado las obras para mejorar la accesibilidad en la calle Eliz Atea. Queremos seguir mejorando Lekeitio realizando intervenciones en las calles (pasos de zebra, aceras, iluminación, barandillas,...). En la variante se pondrán varios bancos. También se realizará una campaña de control de gaviotas, entre otras.

HEZKUNTZA, HAURTZAROA ETA GAZTETXOEN AISIALDIA

419.383,20 €

Ikastolari, Herriko Eskola Publikoari eta Iturriotz Institutuari egiten zaizkien diru ekarpenak mantendu egingo dira eta baita aisialdiko zerbitzuak ere. Hezkuntza batzordean ikasteetxeen hezkuntza proiektuak berrikusiko ditugu. Berrikusketa honen helburua herriko ikasleek, Lekeitioko eta Euskal Herriko ondarearen ezagupena izatea da. Lehen aldiz Lekeition, EHU-UPV rekin elkarlanean Udako ikastaro bat emango da.

Kontuan izanda 40 urte baino gehiago dauzkatela, Herri Eskolako eraikin gorriko leihoak bi fasetan aldatuko dira umeen segurtasuna hobetzeko eta energia galerarik ez egoteko. 2016.urtekoa lehen fasea izango da eta leiho erdiak aldatuko dira, 2017an azken fasea buruko da falta diren leihoak ordezkatzuz.

Atea kaleko umeen gunean kolunpio berriak eta behegain berria jarriko dira.

Gaztegunean ere hobekuntza lanak egingo ditugu: 2016. urtean teilatua eta igogailua konponduko dira eta 2017. urtean leihoak, eraikinaren kanpoaldea eta barruko aldea pintatuko dira.

EDUCACIÓN, INFANCIA Y OCIO INFANTIL

Entre otros, señalar que se van a mantener las aportaciones económicas destinadas a los centros escolares, que se van a poner ventanas nuevas en el edificio rojo de la escuela por seguridad de los/las menores y por ahorro energético, que en Atea se van a poner nuevos columpios y suelo en la zona de juegos, y que en el Gaztegunee es necesario reparar el tejado y el ascensor.

EUSKERA

58.718,00 €

Euskara ikasi edo euskaraz alfabetatzeko diru laguntzak emango dira eta egungo araudia aldatzeko pausuak eman A1, A2 eta B1 maila gainditzen duten herritarrei lehentasunez laguntza eta babesa emateko. Gainera, ikasle etorkinentzat errefortzuko euskara eskolen kostua Udalak beregain hartuko du, 2015-2016 ikasturtean errefortzu klaseok lehenengo aldiz batxilergoko ikasleei zuzenduz.

EUSKERA

Se concederán ayudas económicas a aquellas personas que estudien euskara y se seguirán ofreciendo clases de refuerzo para jóvenes migrantes en edad escolar.

GARAPEN EKONOMIKOA

309.862,00 €

Merkataritza Indarberritzeko Plan Berezi berria egingo da merkataritza sektorearekin batera, herriko merkatal jarduera suspertzeko. Bestalde, ostalaritza sektorea ere plan honen partaide izango da.

Herriko enpresen elkarkidetzak sustatu nahi da, hainbat gai landu ahal izateko. Horregatik, Kitto elkartearekin hartu emana mantendu egingo da eta ostalaritza arloan ere elkarte bat sortzen lagunduko da ere.

Elkarte hauek Garapen Batzordean parte hartzea espero da.

Turismo arloan 2016ra begira eginkizunik esanguratsuenak honako hauek dira:

- Turismo bulegoaren zerbitzua eraginkorragoa bihurtuko da.
- Elizako bisita gidatuen programa urte osora zabalduko da.
- Lekeitioko posizionamendua bermatu itsas ondarearen inguruan (bai turismo eta baita kultura eta gizarte ikuspuntutik ere).
- Bisita eta zerbitzu turistiko berriak eskaini Itsas Ondare Zentroan, urtarotasuna saihesteko.

Gaur egunean Eskolapeko kioskoa jarduera barik dagogenez erabilera emateko asmoarekin ideia lehiaketa bat garatuko da honen inguruan.

Espazio Publikoaren Ordenantza arautuko da, herriko espazio publikoak modu arrazional eta antolatuan erabiltzeko oinarriak zehazteko.

DESARROLLO ECONÓMICO

Se va a realizar un Plan Especial de Revitalización Comercial junto con el sector de comerciantes y de hostelería del pueblo. Se seguirá la colaboración con la asociación Kitto y se va a prestar la ayuda necesaria para que en el sector de la hostelería también se cree una asociación.

Respecto al turismo, se quiere optimizar la eficacia de la oficina de turismo, realizar visitas a la basílica durante todo el año, garantizar el posicionamiento de Lekeitio en el patrimonio marítimo, ofrecer nuevos servicios turísticos.



GIZARTE ZERBITZUAK

94.875,00 €*

Gizarte Zerbitzuetan **harrera indartu** egingo da zerbitzuen kalitatea hobetze aldera, administrari laguntzaile bat gehituz.

Legeak exigitzen gaituen Zerbitzuen kartera lantzen hasiak gara eta besteak beste erresidentziarekin urgentziazko ingresoak dauden kasuetarako hitzarmena egingo dugu.

*Gizarte Larrialdietarako eta gizarte programetarako partidak mantendu egingo dira eta baita AVIFES eta Gurutz Gorriarekin Udalak dituen hitzarmenak ere. Gizarte Zerbitzuetako zerbitzu orokorrak, aholkularitza juridikoa, urgentzi egoerak, oinarrizko gizarte zerbitzuak eta eskuhartze zerbitzuak Lea Artibai Amankomunazgoaren bidez mankomunatuta daude. Azpimarratu baita, Udaletxeak aparte 25.000,00 euroko partida bat gehitzen duela Gizarte Larrialdietarako laguntzen beharrezana daukaten lekeitiarrei emateko.

Hirugarren Adinari dagokionez, Jubilatuen Etxearen mantenuan inbertituko da eta Hirugarren Adineko jarduerak eta zerbitzuak eman ahal izateko, Udalak ekarpenak mantenduko ditu.

SERVICIOS SOCIALES

Se va a reforzar la recepción en el Servicio incorporando una figura de auxiliar administrativo. Estamos trabajando para adecuarnos a la nueva cartera de servicios sociales y entre otros vamos a elaborar un convenio a suscribir con la residencia Uribarren Abaroa para dar respuesta a casos de ingreso urgente en la residencia.

*Se van a mantener las partidas para ayudas de emergencia social, programas sociales, actividades relacionadas con personas mayores, los convenios con AVIFES y la CRUZ ROJA. *Cabe señalar que la mayoría de los servicios están mancomunados y son prestados a través de la Mancomunidad de Lea Artibai. A su vez, el Ayuntamiento dota una partida presupuestaria de 25.000,00 euros para conceder ayudas de emergencia social.*

KREDITUAK EDO ZORRA

640.172,00 €

Lekeitioko Udalak dituen kreditoak ordaintzeko.

CRÉDITOS Y DEUDA

KIROLA

632.881,00 €

Herriaren garapenerako onuragarriak eta inpaktu ekonomikoa duten Kirol ekintzak lagunduko ditugu. Baita herriko kirol elkarteak ere.

Kiroldegiko futbol-tokoa eta Isuntza Arraun elkartearen lokalaren teilatuak konponduko ditugu, eraikin hauen mantentze eta segurtasuna ziurtatzeko. Bestalde, kiroldegian kiroldegian eta Atletismo pistan ere bestelako hobekuntzak ere egingo dira.

Azkenik, gogoratu, Kirol instalakuntzen ordutegia handitu egin dela 2016an.

DEPORTES

Seguiremos fomentando y apoyando a los grupos deportivos municipales y a las actividades que reporten beneficios a nuestro pueblo.

En el polideportivo, en el local de Isuntza y en la pista de atletismo se van a realizar obras de mejora y subsanación de deficiencias.

Cabe destacar que en el año 2016 el horario de las instalaciones deportivas ha sido ampliado.

PARTE HARTZEA ETA HERRITARREKIN KOMUNIKAZIOA

25.550,00 €

2016. urtean hiru parte hartze prozesu ipiniko ditugu martxan: San Andres auzoko proiektua diseinatzeko, Paisaia Plana eta HAPO (Herri Antolamendurako Plan Orokorra) egiteko.

Aurrekontuen proposamen hau ere parte hartze prozesua duzu.

Herritarren Parte Hartzerako Udal Ordenantza martxan jarriko dugu.

Herritarrei zuzenduta, urtean bitan, udal aldizkaria argitaratuko eta banatuko da.

PARTICIPACIÓN COMUNICACIÓN

A lo largo del año 2016 se realizarán 3 procesos de participación: para diseñar el proyecto del barrio de San Andrés, para la elaboración del Plan de Paisaje y para el diseño del Plan General de Ordenación urbana.

Esta propuesta de presupuestos que te presentamos también es un proceso de participación.

PERTSONALA ETA UDAL ANTOLAMENDUA

3.141.870,00 €

Pertsonalaren soldatan %1eko igoera egongo da, legea betez. Guztira udaletxeko plantillan 80 langile daude. Enplegu plan bat lantzen gabiltza alde batek udal langileen baldintzak hobetzeko eta bestetik, egun dagoen langileriaren egitura egokitzeko/eguneratzeko Udaletxeak herriari zerbitzu eraginkorra ematen jarraitu ahal izateko.

PERSONAL Y ORGANIZACIÓN MUNICIPAL INTERNA

Se subirá el sueldo de la plantilla en un 1% de acuerdo a lo que marca la ley. En total el Ayuntamiento dispone una plantilla de 80 trabajadores y trabajadoras. Estamos elaborando un plan de empleo por una parte con el objetivo de mejorar las condiciones del personal y por otra para adecuar/actualizar la estructura de la plantilla actual y así poder seguir ofreciendo una atención eficaz a los/las lekitarras.

GAZTERIA

17.500,00 €

18 eta 35 urte bitarteko herriko gazteei zuzendutako etxebizitzaren alokairurako diru-laguntzak martxan ipiniko ditugu. Horretarako 10.000,00 euroko aurrekontua egongo da.

Aisialdiko begirale ikastaroak martxan ipiniko ditugu gazteek aisialdiko begirale titulua lor dezaten. Gababusa" zerbitzua mantendu egingo da. Zerbitzua gazteak eskualdeko herrietako jaietara joateko sortu zen eta ondorioz hauek kotxerik ez hartzeko.



@LekittoGazteria

JUVENTUD

Se concederán ayudas económicas para alquiler dirigidas a jóvenes de entre 18 y 35 años. Se pondrán en marcha cursos para obtener el título de monitor/a de tiempo libre. Gababusa" que tiene como objetivo garantizar a los/las jóvenes un servicio de transporte público nocturno para acudir a las fiestas de los municipios de la zona sin necesidad de coger el coche.

KULTURA

448.147,00 €

Urtean zehar hainbat ekintza antolatuko dira eta inpaktu ekonomikoa duten Euskal Zine Bilera, Kale Antzerkia, eta San Pedro eta San Antolin jaiak bul-tzatu eta sustatuko dira. Herriko kultur elkarteek ere udalaren diru ekarpenak jasotzen jarraituko dute.

Berrikuntza bezala maiatzaren 15ean Bizkaiko Dantzari Eguna Lekeition ospatuko da

CULTURA

Seguiremos fomentando y apoyando a los grupos culturales municipales y a las actividades que reporten beneficios a nuestro pueblo, tales como Euskal Zine Bilera, Kale Antzerkia, y las fiestas de San Pedro y San Antolín.

HIRIGINTZA

669.571,00 €

2016. urterako Hirigintza arloan San Andres auzoa barrizteko proiektua egingo da. San Juan Talako kaleari soluzio bat topa eta proiektua egin, Abaroa Jauregiko teilatua konponketa (II.fasea) eta Lekeitiorako Herri Antolamendu Plan Orokor barria landu (HAPO).

URBANISMO

En el año 2016 se van a realizar el proyecto de revitalización del barrio San Andrés, encontrar solución a la calle San Juan Talako diseñando para ello un proyecto, llevar a cabo la II fase para arreglar el tejado del Palacio Abaroa y elaborar un nuevo Plan General de Ordenación Urbana de Lekeitio.

BESTE BATZUK

1.194.542,80 €

Udalaren gastu arrunta edo herriaren egunerokotasunean sortzen diren gastuak.

Para gastos corrientes y necesarios para el funcionamiento diario del pueblo.



@Lekeitio_Udala



www.lekeitio.eus



youtube.com/LekeitiokoUdala



partehartzea@lekeitio.eus



facebook.com/LekeitiokoUdala



656702508

parte hartu
lekeitio zeure
erara egiteko!



"Hitzetatik
ekintzetara,
Lekeitio
zeure erara"



lekeitioko udala

2016KO UDAL AURREKONTU PROPOSAMENARI EKARPENAK EGITEKO ORRIA

(Parte hartzeko baldintzak: Lekeition erroldatuta egotea eta adin nagusikoa izatea)

IZENA:

ABIZENAK:

NAN:

HELBIDEA:

TELEFONO ZENBAKIA:

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

HARREMANETARAKO BESTE MODU BAT:

EKARPENAREN AZALPENA:

Orri hau bete ondoren kultur etxean, kiroldegian edo udaletxean entregatu

Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan araututakoaren arabera, jakinarazten dizugu eskaera honetan jasotako datuak, datuon tratamendurako izaera pertsonaleko fitxategi informatizatu batean integratuko direla. Izan ere, fitxategia kudeaketaren funtzionamenduaren onurarako erabiliko da. Aipatu informazioaren jasotzailea Lekeitioko Udala izango dela, adierazitako helburuetarako. Fitxategi honen arduraduna Lekeitioko Udala da eta haren aurrean fitxategia erabili, zuzendu, ezabatu edota beraren aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango da, komunikazioa honako helbide honetara bidaliz: Gamarra kalea 1, 48.280 Lekeitio. Inprimaki hau sinatuz, berariaz baimena ematen duzu zure datuak bertan xedatutakoaren arabera erabiltzeko.

De conformidad con lo previsto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, sobre Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos que los datos recogidos en este documento, se integrarán en un fichero informatizado de carácter personal y dichos datos se utilizarán en beneficio de la gestión. Los datos de este fichero serán consultados únicamente por el Ayuntamiento de Lekeitio para los fines anteriormente citados. La entidad responsable de este fichero es el Ayuntamiento de Lekeitio, ante quien usted podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, dirigiendo una comunicación a la siguiente dirección: Gamarra kalea 1, 48.280 Lekeitio. Mediante la firma de este formulario consiente expresamente el tratamiento de sus datos de acuerdo con lo dispuesto en el mismo.



Data eta sinadura

Orri hau bete ondoren kultur etxean, kiroldegian edo udaletxean entregatu

Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan araututakoaren arabera, jakinarazten dizugu eskaera honetan jasotako datuak, datuon tratamendurako izaera pertsonaleko fitxategi informatizatu batean integratuko direla. Izan ere, fitxategia kudeaketaren funtzionamenduaren onurarako erabiliko da. Aipatu informazioaren jasotzailea Lekeitioko Udala izango dela, adierazitako helburuetarako. Fitxategi honen arduraduna Lekeitioko Udala da eta haren aurrean fitxategia erabili, zuzendu, ezabatu edota beraren aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango da, komunikazioa honako helbide honetara bidaliz: Gamarra kalea 1, 48.280 Lekeitio. Inprimaki hau sinatuz, berariaz baimena ematen duzu zure datuak bertan xedatutakoaren arabera erabiltzeko.

De conformidad con lo previsto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, sobre Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos que los datos recogidos en este documento, se integrarán en un fichero informatizado de carácter personal y dichos datos se utilizarán en beneficio de la gestión. Los datos de este fichero serán consultados únicamente por el Ayuntamiento de Lekeitio para los fines anteriormente citados. La entidad responsable de este fichero es el Ayuntamiento de Lekeitio, ante quien usted podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, dirigiendo una comunicación a la siguiente dirección: Gamarra kalea 1, 48.280 Lekeitio. Mediante la firma de este formulario consiente expresamente el tratamiento de sus datos de acuerdo con lo dispuesto en el mismo.





LA FAROLA DE LA PLAZA

Después de 25 años se ha vuelto a iluminar la farola situada en el centro de la plaza de Lekeitio, una demanda vecinal.

LA ISLA DE GARRAITZ

Para garantizar la seguridad de las/os visitantes de la Isla Garraitz, se ha procedido a la tala de aquellos arboles en riesgo de caerse. Unos 40 ejemplares ya secos han sido talados y otros tantos se han mantenido. Aunque, a corto/medio plazo se secarán y tendrán que ser retirados. Por otro lado, se está estudiando la posibilidad de la replotación forestal de la isla, y si fuera el caso, la especie, más idónea para ello.



ABAROA JAUREGIKO LEHEN FASEA ADJUDIKATZEKO LIZITAZIOA

1891. urteko Abaroa jauregiaren teilatua oso egoera txarrean dago eta ezinbestekoa da zaharberitze lanak lehen bait lehen hastea.



Abaroa jauregia Alfred Achile Napoleón Feine arkitekto frantsesak "Bigarren Inperio" estilora diseinatutako bizileku aristokratikoa da. Lekeitioko Udalak 2004an eskuratu zuen.

2015eko urriaren 6an Eusko Jaurlaritzak, kultura ondasun sailkatu zuen eraikina, monumentu-multzo kategoriarekin. Egun erreteilak duen egoera arriskutsua izateaz gain, konponketarik egiten ez bada, erreteila jausi eta eraikina guztiz kaltetuko da.

Eraikinean 2014ko otsailean izandako suteak eta egiturak izan dituen xilofagoen eta termiten izurriak erreteilaren egoera traketsa larritu dute.



Lehen fase honetan 170.000 euroko inbertituko dira, eta printzipioz, 4 hilabetetan amaituko da.

Bigarren fasea, lehen fasea bukatu bezain laster hasiko da eta gehienez 60.000,00 euro kostako da.

Obra hau egin ahal izateko, Lekeitioko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako diru laguntzak lortu ditu.

Lanak hasten direnean, Abaroa Jauregiko lorategia itxi egingo da erreteilaren konponketaren bigarren fasea amaitu arte.

Abaroa erreteilaren konpoke ta lanak otsailaren bukaeran edo martxoaren lehen egunetan hasiko dira.



HIRIBILDUAREN 690. URTEURRENA

2015ko Azaroaren 3an, Lekeitioko hiribilduak 690 urte bete zituen. Lekeitioren historia ofiziala 1325. urtean hasi zen. Hiribildu bihurtu baino lehen, elizate bezala sortuta zegoen jadanik.

Aintzina, gaur eguneko Lekeitio kokatua dagoen lekuan arrantza mundutik bizi zen Bizkaiko Elizate-Elkartasuneko kontzeju edo herri bat zegoen,. Biztanleria Santa Maria elizaren inguruan ezarrita zegoen. Portuan, Arranegi kalea zen arrantzale familien gunea; Dendari kalea, ostera, merkataria gunea. Azken hau, gainera, barru aldera abiatzeko bidea zen (Atea).

1325. urtean Maria Diaz de Haro Bizkaiko Andereak fundazio karta eman zion Lekeitioko elizateari. Horrela hiribildu bihurtu zen herritoxa eta zenbait onura juridiko, merkatal, fiskal, militar, eta baita erlijioso ere eskuratu zituen.

Kartak hiriko mugak ere ezarri zituen, eta eurok zirela-eta burruka batean ibili ziren alboko elizate eta burdinolekin.

Harrezkero Alfonso XI.ak berretsi egin zuen fundaziozko karta 1334.ean. Eta beroren agintaldian eraiki ziren hiriko harresiak, nahiz hesi bat fundaziozko karta baino lehen ere egon.

Lekeitiarrei autonomia zabala ematen zien herriko administrazioaren kudeaketan euren forua edukitzeak. Baita lehen mailako epaiketetan, hiriaren bilakaeran, iharduera ekonomikoetan eta gaurko Udalbatzaren baliokideko Kontzejuko kargudunak izendatzean ere. Kontzejua alkateak eta errejidoreak



osutzen zuten. Alkateak batzarburu egin, erabakitako dekretuak onartu eta euren kalitatezko botoa zela-eta, errejidoreen arteko istiluak ebazten zituen. Baina bereziki epailea zen.

Kartak Santa Maria elizaren patronatua eman zion hiriari. Honetara, hiria parrokiaren ondasunen jabekide bihurtu zen, parrokiaren errenten administratzaile, elizgizonen izendatzaile eta parrokia apaintzeko arduradun.

“OSTATU ETA BERDINETSIEI BURUZKO ORDUTEGIA”



Lekeitioko Udalak, “Ostatu eta berdintsien” udal ordenantzaren jasota dauden ordutegiak Eusko Jaurlaritzaren 36/2012 Dekretura egokitu behar ditu.

Azaroaren 2an, Lekeitioko udala, besteak beste, herriko tabernariekin batzartu zen. Eusko Jaurlaritzak ezarritako ordutegiari buruzko informazioa idatziz helarazi zaie.

1994an, Udalak, “Ostatu eta berdintsie buruzko ordutegia” deritzon ordenantza onartu zuen eta gaur egunera arte herriko jarduerak arautzeko ordenantza hau erabili da oinarritzat.

Martxoaren 13ko 36/2012 Dekretua, Jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ezartzen dituen argitaratu zen 2012ko martxoaren 21ean. Bertan zehazten diren ordutegiak

1994ko udal ordenantzarekin alderatuta, aldaketa nabarmenak ditu, besteak beste, Dekretuak ordutegi murriztagoa aurreikus-ten duelako.

Guzti honen berri ostalaritzako titularrei eman zitzaizen azaroaren 2an Barandiaran Aretoan izandako Turismo Jardueren ekitaldian. Idatziz ere helarazi zaie Eusko Jaurlaritzak ezarritako ordutegiari buruzko informazioa.

Beraz, Eusko Jaurlaritzaren 36/2012 Dekretuak dioena bete beharko dute ostalariek.

Hala ere, dekretuak udalei ahalmena ematen die, alde batetik, zaindariaren jaiak eta beste jai edo interes turistikoa duten beste gertakari batzuk direla eta, gehienez bi orduz luzatzea aurreikusitako ordutegia, betiere dagokion urte naturalerako udal bakoitzak onartu beharko duen egutegiaren arabera eta bestalde udalak ordutegi orokorra ere luzatu ahalko du gehienez bi orduz, urte natural bakoitzeko hamabost eguneko gehienezko mugarekin.

Hau horrela, tabernariekin landuko da 2016 urteko egutegia.

NUEVO HORARIO DE LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS

KIROL INSTALAKUNTZAK ORDUTEGIA - 2016

	NEGUA	UDA
Astelehenetik barikura	8:00 – 22:00	8:00 – 22:00
Zapatuak	9:00 – 13:30 / 16:30 – 20:00	9:00 – 14:00
Domekak + Jai egunak	9:00 – 13:30	Zarratuta

Paskual Abaroa Etorbidea, 49
48280 Lekeitio

Tfnoa: 94 624 30 05 Faxa: 94 624 38 61

www.lekeitio.eus



**lekeitioko
udala**

UDAL KIROL ETA KULTUR ERAKUNDEAK DESEGIN DIRA

Udal Kirol Erakundeko Batzorde eragileak abenduaren 9an erakundearen desegite proposamena egin eta onartu zuen aho batez. Abenduaren 15ean gauza bera egin zuen Kultur Erakundeko Batzorde eragileak.

Abenduaren 17an egindako Osoko Bilkuran, Udal Kirol Erakundeko eta Kultur Erakundeko Batzorde eragileek onartutako desegitea berretsi zen, talde politiko bion adostasunarekin.

Erakundeen sorreratik gaur egunera arte UKE (Udal Kirol

Erakundea 1990), LUKE (Lekeitioko Kultur Erakundea 1992) eta Lekeitioko Udalaren funtzionamenduaren errealitatea asko aldatu da.

Zerbitzuen arrazionalizazioa eta administrazioaren eraginkortasuna bermatzeko eta herritarrei ematen zaien zerbitzuen kalitatea hobetzeko asmoarekin hartu da erabakia.

Azken urteotan, Lekeitioko Udalak berak hartu du aipatutako erakundearen pertsonalaren eta kontabilitatearen ardura.

Bestalde, UKEko eta LUKEko Batzorde eragileak gai burokratikoetara mugatu dira azken urteotan eta adibidez, LUKEko Batzorde eragilea azken lau urteetan birritan baino ez da batu.

UKE eta LUKE desegin direnez, erakunde bietako langileak Lekeitioko Udaleko langile izatera pasako dira. Laburbilduz, UKE eta LUKE desegiteak ez du kalterik suposatuko ez kultur ezta kirol arloen funtzionamenduari ezta helburuei ere, eduki bera izango baitute. Udalarekin bateratzeak, aurrezkoa ekarriko du.



@Lekeitio_Udala



www.lekeitio.eus



youtube.com/LekeitiokoUdala



partehartzea@lekeitio.eus



facebook.com/LekeitiokoUdala



656702508

GARAJEAK SALGAI



Atea Kalea 34an
(lehengo Garabillenerako eraikinean)

INFORMAZIOA

Lekeitioko Udaletxean
Bulego Teknikoan
Tel.: **94 603 41 00**